



## LARRABETZU ETA OROIMEN HISTORIKOA

Urteak dira, norbanako edo elkarteen ekimenez Larrabetzun 36ko gerrari lotutako oroimena eta ondarea jaso eta argitara ekartzeko jardunak burutzen direna, urteurren biribiletan (2007, 2012, 2017) oihartzun eta programa zabalak izan dituztenak eta dinamika apalagoa tarteko urteetan. Udalak egitasmo horiek babestu izan ditu eta baita beste batzuk sustatu ere: ikerketak, katalogazioak, indusketak... eta bereziki esanguratsua izan zen Gaztelumendiko Gurutze frankistaren eraispena, kolpistek mendi horretan gudarien eta errepublikaren aldeko soldaduen defentsa apurtu zutela gogorarazteko eraiki zuten zorigaitzoko ikurra.

Halaber, Memoria Historikoari lotutako ekimenek bultzada berezia hartu dute, oro har, EAEko Gogora Memoriaren institutuaren sorrerarekin eta, bereziki, Larrabetzu eta hurbileko herriei dagokienean, Burdin Hesia Monumentu-multzo kategoriarekin Kultur-ondasun izendatzearekin batera. Burdin Hesia deiturikoaren hondarrak askatasunaren aldeko borrokaren lekuko baliotsuak dira. Larrabetzun azpiegitura horren hainbat elementu eta aztarna mantentzen dira, hirigunean nahiz landa eremuan,

### **Arte Ederren fakultatearekin elkarlana eta ekimen honen helburua**

Oroimen historikoaren arloan herrian egindakoaren emaitzak jaso, aukerak aztertu eta aurrera begirako norabidea marrazteko helburuarekin proiektua dauka Larrabetzuko Udalak egun. Memoriaren gune bat sortu da web: <http://www.larrabetzu.eus/eu-ES/Oroimena/Oriak/default.aspx> eta oroimen lekuen ibilbide bat, testigantza eta material bilketa edo Larrabetzu iheslarien harrera-herria izan zela gogoraraziko duten jardunaldiak aurreikusten dira.

Ekintzen artean, Gaztelumendiko sinbolo frankista ordezkaturiko duen ikur edo adierazpenaren bila ere badabil Udala. Eraitsitakoak ez bezala, memoria egiazkoa, justua eta erreparatzailea barnebilduko duen esku-hartze artistikoa (materiala edo ez-materiala) izango litzateke, beti ere, -eta gure ustez, hau da garrantzitsuena- herritarren parte hartzearekin landu eta garatu beharko dena.